



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: 2013ko irailaren 30a, astelehena

Ordua: 19:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: 30 de Septiembre de 2.013, lunes

Hora: 19:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2013.06.18).

2.- 2012ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

3.- BAKE EPAILE POSTUARENTZAKO IZENDAPEN PROPOSAMENA.

4.- 2014. URTEKO HERRIKO JAIEGUNA FINKATZEKO ERABAKIA BERRESTEA.

5.- 2014 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2013/92tik 2013/136ra).

7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

ORDEN DEL DIA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (18.06.2013).

2.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.012

3.- PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO PARA EL PUESTO DE JUEZ DE PAZ.

4.- RATIFICACION DE LA FIJACION DE FECHA PARA LA FIESTA LOCAL DEL AÑO 2.014

5.- APROBACION, DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2.014

6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 92/2013 al 136/2013).

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 2013ko irailaren 26an.

Alkatea.

Zizurkil, 26 de Septiembre de 2.013

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2013ko IRAILAREN 30ean
EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO
ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 30 DE
SEPTIEMBRE DE 2.013**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/ CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu) (1)

(1) Zinegotzi hau Udalbatza hasita etorri dira / La concejal indicada llega mediada la Sesión.

IDAZKARIA / SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamahiruko irailaren hogeita hamarreko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Aritz Esnaola Arruti (Bildu) eta Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2013.06.18).**

Udalbatzak aho batez erabaki du 2013ko ekainaren 18an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día treinta de Septiembre de dos mil trece, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Aritz Esnaola Arruti (Bildu) y Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(18.06.2013).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 18 de Junio de 2.013



ZIZURKILGO UDALA

2.- 2012ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Espedientea ikusirik eta jakinda 2013ko ekainaren 18an Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak 2012 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena eman ziola.

Aipatutako Kontua jendeaurrean jarria izan zen 15 eguneko epean eta alegazio edo erreklamazio bat ere ez zen aurkeztu.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63 artikuluari jarraiki, Udalbatzari dagokiola Kontu Orokorrak onartzea.

Azaldutako guztiarengatik, Udalbatzak onartzeko dagokion bozketa egin du, eta hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (6 Bildurenak, 1 E.A.J.-P.N.V.rena eta 1 P.S.E.-E.E./P.S.O.E.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, aho batez, Udalbatzak 2012 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorra behin betirako onartzea erabaki du.

3.- BAKE EPAILE POSTUARENTZAKO IZENDAPEN PROPOSAMENA.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu dela eta epe horretan lau eskaera aurkeztu direla jakinarazten da.

Izangaien eskaera eta "curriculum-vitae"ak ikusi ondoren, Udalbatzak, aho batez eta partaide guztien gehiengo osoaz, erabaki du:

Lehena.- Zizurkilgo Bake Epaille titular kargurako Edurne Olamusu Jauregi Andrea proposatzea.

2.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2012

Visto el expediente y resultando que el día 18 de Junio de 2013 la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento emitió informe favorable sobre la Cuenta General del Presupuesto de 2012

Expuestas dicha Cuenta al público por plazo de 15 días, resulta que no se han presentado alegaciones ni reclamaciones.

Considerando que es competencia del Pleno la aprobación definitiva de la Cuenta General, a tenor de lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, la Corporación procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (6 de Bildu, 1 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del P.S.E.-E.E./P.S.O.E.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que, por unanimidad, la Corporación acuerda aprobar definitivamente la Cuenta General del Presupuesto del ejercicio de 2012

3.- PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO PARA EL PUESTO DE JUEZ DE PAZ.

Habiendo finalizado el plazo para la presentación de solicitudes, se informa que se han presentado cuatro solicitudes para cubrir el puesto.

Vista las mismas y los "curriculum-vitae" de los candidatos, la Corporación, por unanimidad y con la mayoría absoluta de todos sus miembros, acuerda.

Primero.- Proponer a Doña Edurne Olamusu Jauregi para el cargo de Juez de Paz titular de Zizurkil.



ZIZURKILGO UDALA

Bigarrena.- Zizurkilgo Bake Epaile ordezeko kargurako Francisco Javier Eizagirre Zurutuza Jauna proposatzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Euskadiko Epaitegi Goreneko Lehendakartzara bidaltzea.

4.- 2014. URTEKO HERRIKO JAIEGUNA FINKATZEKO ERABAKIA BERRESTEA.

2013ko irailaren 5ean sinatutako 128/2013 Alkatea Dekretua ikusi da. Horren bidez 2014ko herriko jai eguna finkatzen da: irailaren 9a, asteartea, Arantzazuko Amaren jaiaren eguna. Ondoren, Udalbatzak, aho batez, aipatutako Dekretua berrestea erabaki du.

5.- 2014 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Taxi Elkarte (AGITAX)-ek eskatuta, Tolosaldea Garatzenek Tolosaldeko hiri eremuan 2014 taxi zerbitzuen tarifak igotzeko proposamena aurkeztu du.

Proposamena ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du, emaitza honekin:

- Aldeko botoak: 8 (6 Bildurenak, 1 E.A.J.-P.N.V.rena eta 1 P.S.E.-E.E./P.S.O.E.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, legezeko gehiengo absolutu aldeko botoekin, onartu da:

Lehena.- 2014 urterako taxi tarifak honakoak izango dira:

Segundo.- Proponer a Don Francisco Javier Eizagirre Zurutuza para el cargo de Juez de Paz sustituto de Zizurkil.

Tercero.- Remitir el presente acuerdo a la Presidencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

4.- RATIFICACION DE LA FIJACION DE FECHA PARA LA FIESTA LOCAL DEL AÑO 2.014

Visto el Decreto de Alcaldía nº 128/2013, de 5 de Septiembre de 2.013, por el cual se acuerda designar como festividad local para el año 2.014 el día 9 de Septiembre, martes, día de la festividad de Nuestra Señora de Aránzazu, la Corporación, por unanimidad, acuerda ratificar dicho Decreto.

5.- APROBACION, DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2.014

A petición de la Asociación Guipuzcoana del Taxi (AGITAX), Tolosaldea Garatzen ha presentado una propuesta para incrementar las tarifas unificadas de taxi en la comarca de Tolosaldea para el 2.014

Vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (6 de Bildu, 1 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del P.S.E.-E.E. /P.S.O.E.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, con el voto favorable de la mayoría absoluta legal, se acuerda:

Primero.- Que las tarifas de taxi para el año 2.014 sean las siguientes:



ZIZURKILGO UDALA

TARIFAK	ABISARIA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ZAIN EGONDAKO ORDUA
TARIFAS	BAJADA DE BANDERA	POR KILOMETRO RECORRIDO	POR HORA DE ESPERA
1. TARIFA	4,040208	0,991858	17,984887
2. TARIFA	4,559786	1,508899	26,492515

- Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko bidaia eta 5 minutuko itxarondenbora barne ditu.
- La tarifa mínima incluye 1,5 kilómetros de recorrido y cinco minutos de espera.
- 1. tarifa lanegunetan aplikatuko da, 07:00etik 22:00etara
- La Tarifa 1 es aplicable los días laborables entre las 07:00 y las 22:00 horas.
- 2. tarifa egun guztietan aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Igandeetan, erkidegoko eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan eta larunbatetan, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
- La Tarifa 2 será aplicable todos los días desde las 22:00 horas hasta las 7:00 horas. Se aplicará igualmente desde las 07:00 a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.

Bigarrena.- Erabaki honen berri AGITAXi, Tolosaldea Garatzen S.A. eta Industria, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Gipuzkoako Lurralde Bulegora bidaltzea.

Segundo.- Comunicar este acuerdo a AGITAX, a Tolosaldea Garatzen S.A. y la Oficina Territorial de Industria, Comercio, Consumo y Turismo de Gipuzkoa.

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2013/92tik 2013/136ra).

2013/92etik 2013/136ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2013ko ekainaren 17tik irailaren 23ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu) zinegotzia orain iritsi da.

6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 92/2013 al 136/2013).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 92/2013 al 136/2013 firmados por la Alcaldía entre el 17 de Junio y el 23 de Septiembre de 2.013, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Se incorpora al Pleno la concejal Leire Zubeldia De Esteban (Bildu).



ZIZURKILGO UDALA

7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

“HERRIRA”ren AURKAKO OPERAZIO POLIZIALA.

Bilduk gaur “Herrira”ren aurka garatutako operario polizialari buruzko komunikatu bat irakurtzea eskatzen du. Komunikatua Akta honen I Eranskin modura agertzen dena da.

P.S.E.-E.E./P.S.O.E.k dio 18 atxilotu daudela bakarrik dakiela eta ez dakiela besterik. Hala ere, indarrean dagoen legedia eta epaileen erabakiak errespetatzen dituela dio ETAk egin behar duen gauza bakarra disolbatzea da, eta hori lehenbaitlehen egitea.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du presten eskubideen alde daudela eta gai honetan komunikatuan adierazitakoarekin ados daudela diote.

“ATEZ-ATE” ZABOR BILKETA SISTEMA

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak gogorari du uztailaren 29an idatzi bat aurkeztu zuela “Atez-ate” zabor bilketa sistema martxan jartzeari buruzko informazioa eskatuz eta oraindik ez du erantzunik jaso.

Aitor Sarasua Arruti (Bildu) zinegotziak erantzun dio Udal batzutan antzeko eskaerak jaso direla eta udal bakoitzak erantzun ordez, Tolosaldeako Mankomunitateak denei erabaki bateratua ematea erabaki duela; beraz, nahi badu, dokumentazio hori Mankomunitateari eska diezaioke.

M^a Angeles Lazkano zinegotziak dio eskaera Udal honetako zinegotzi modura egin zuela eta, beraz, Udalak eman behar diola erantzuna, eta ez Mankomunitateak.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

OPERACIÓN POLICIAL CONTRA “HERRIRA”.

Bildu solicita leer un comunicado en relación con la operación policial desarrollada hoy contra “Herrira”. Dicho comunicado es el que se refleja en el Anexo I de este Acta.

El P.S.E.-E.E./P.S.O.E. manifiesta que sólo sabe que hay 18 detenidos y no sabe nada más. De todas formas, muestra su respeto a la legislación vigente y a las decisiones de los jueces. Lo único que tiene que hacer ETA es disolverse y hacerlo lo antes posible.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que están a favor de los derechos de los presos y en este tema muestra su conformidad con lo señalado en este comunicado.

SISTEMA DE RECOGIDA DE BASURAS “PUERTA A PUERTA”

La concejal M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) recuerda que el pasado día 29 de Julio presentó un escrito solicitando información sobre la puesta en marcha del sistema de recogida de basuras “puerta a puerta” y todavía no ha recibido contestación alguna.

El concejal Aitor Sarasua Arruti (Bildu) le responde que en varios Ayuntamientos se han recibido solicitudes similares y que en vez de que cada Ayuntamiento de respuesta a las mismas, la Mancomunidad de Tolosaldea ha decidido dar una respuesta unitaria a todas ellas, por lo que si lo desea, puede solicitar dicha documentación a la Mancomunidad

La concejal M^a Angeles Lazkano dice que la solicitud la hizo como concejal de este Ayuntamiento, por lo que debe ser el Ayuntamiento quien deba darle la documentación, no la Mancomunidad.



ZIZURKILGO UDALA

Aitor Sarasua zinegotziak esaten dio ados dagoela eta berak emango dizkiola pertsonalki.

Alkate Jaunak M^a Angeles Lazkano zinegotziari gogorarazten dio bere egunean era eskatu ziotela "Tolosaldea txukun"ek Zizurkilen egin zuen kontsultaren emaitzei buruzko akta notarial eta oraindik zain daudela; eta esaten dio lotsatu beharko luketela kontsulta horretan egindako iruzurra del aeta.

M^a Angeles Lazkano zinegotziak erantzun dio Bilduk lotsatu beharko lukeela bilketa sistema Zizurkildarren gehiengoaren iritziauren aurka ezarri izanagatik, eta gogoratzen dio oraindik ez duela idatziz eskatu akta notariala ematea.

Beste aztergairik gabe, eta hogei orduak eta bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

El concejal Aitor Sarasua le comunica que, de acuerdo, que él se la entregará personalmente.

El Señor Alcalde le recuerda a la concejal M^a Angeles Lazkano, que en su día también le pidieron a ella que presentase el acta notarial con los resultados de la consulta que realizó "Tolosaldea Txukun" en Zizurkil, y todavía están esperando la respuesta, y le comenta que se les debería caer la cara de vergüenza por el fraude cometido con dicha consulta.

La concejal M^a Angeles Lazkano le contesta diciendo que es a Bildu al que se le tenía que caer la cara de vergüenza por haber impuesto el sistema de recogida en contra de la opinión mayoritaria del pueblo de Zizurkil. Además le recuerda que todavía no ha pedido por escrito la solicitud de entrega del acta notarial.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.





I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

KONPOBIDEARI ERASORIK EZ!

Utzi bakean Euskal Herria!!

Gaur Euskal Presoen eskubideen alde jarduten duen Herrira mugimenduaren aurka burutzen ari den polizi operazioaren inguruan, honakoa adierazi nahi dugu:

- Lehenik eta behin, gure besarkadarik estuena eta elkartasun osoa atxiloturiko 18 lagunei.
- Presoen eskubideen errespetuaren aldeko euskal jendartearen gehiengo zabalaren aldarrikapena kaletik ateratzeko saiakera bat da polizi operazio hau. Euskal presoek dagozkien eskubideen aldarria kriminalizatu eta desagerrarazi nahi du Estatu espainiarrak.
- Presoen auzia erabiltzen du Estatu espainolak konponbide prozesua blokeatu eta zapuzteko. Bakearen aurka erabiltzen du Estatu espainiarrak euskal presoek ezartzen dien espetxe politika kriminala. Bereziki larria da preso politikoei bizi arteko zigorra de facto ezartzeko neurriak indarrean jarri izana: 197/2006 sententzia, kondena luzeak beteta ere zigorra luzatzen duen dotrina gisa ezagutzen dena; erredentzioak indargabetzea; zigorraren $\frac{3}{4}$ beteta ere askatasun kondizionala ukatzea; eta kondena maximoa 40 urtera luzatzea edo Frantziako espetxeetan urte mugarik gabeko kondenekin zigortzea. Tratu krudela areagotuz joan da, isolamendu eta bakartzea hedatuz eta normalizatuz, dispersio politikan sakonduz etengabeko traslado arbitrarioen bitartez, besteak beste.
- Espetxe politika krudel honen aurrean, presoen eskubideen inguruko adostasun handia dago euskal gizartean. Eskubide guztiekin Euskal Presoak Euskal Herrian batzea; Kondena bete dutenak, $\frac{3}{4}$ bete dituztenak eta gaixotasun larriak dituzten presoak kalera ateratzea; eta isolamendu eta bakartzearekin bukatzea. Aldarrikapen guzti hauek euskal jendartearen artean oso zabalduta daude eta gehiengo zabal batek bereak egin ditu. Herrira-k eskubide guzti hauen aldeko lana egin du, herriz herriz, aldarrikapen hauen defentsan kolore guztietako herritarrak bilduz.
- Beraz, Euskal Herria osoaren aurkako operazio bat da hau, konponbide eta bakearen aurkakoa. Eta gaur pairatzen ari garen polizi operazio honek herri bezalako erantzun zabal bezain irmo bat behar du.
- Horrela bada, bi dei nagusi luzatu nahi ditugu gaurkoan:



ZIZURKILGO UDALA

- Batetik, deituko diren mobilizazio eta ekimen guztietan masiboki parte hartzeko deia luzatzen dugu. Jendartearen gehiengo zabalak adierazi behar dio estatu espainiarrari ez dugula horrelako operaziorik nahi, horrelako operazioak denon aurkako eraso bat direla. Herri honek konponbidea behar duela, herri honek konponbidea nahi duela, eta estatu espainiarrak horrelako operazioekin amaitu behar du betirako.
- Bestetik, presoen eskubideen aldeko aldarrikapena kaletik atera eta kriminalizatu nahi duten honetan, bete ditzagun Euskal Herriko kaleak, gure etxeetako balkoiak eta txoko guztiak “Euskal preso eta iheslariak ETXERA” lelodun txartel eta banderolekin.
- Tantaz-tanta, euskal presoen eskubideen aldeko itsasoa osatu ditzagun.